ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA (ARABA) | AYUNTAMIENTO ALEGRÍA-DULANTZI (ÁLAVA)

# LIZITAZIO-IRAGARKIA

**2023ko maiatzaren 25eko Gobernu Batzordearen** akordioaren arabera, hona hemen **DULANTZI IKASTETXE PUBLIKOAN GENERO-IKUSPEGIA IZANGO DUEN JOLASTOKI INKLUSIBOA SORTZEKO (I. FASEA)** obra-kontratua prozesu ireki sinplifikatu bidez esleitzeko deialdia, datu hauen arabera:

**1.- Erakunde esleitzailea: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:**

a) Erakundea: **Alegría-Dulantziko Udala.**
b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
  1.- Tokia: **Alegría-Dulantziko udaletxea.**
  2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
  3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegría-Dulantzi.**
  4.- Telefono-zenbakia: **945-420027.**
  5.- Telefax-zenbakia: **945-420394.**
  6.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
  7.- Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.contratacion.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
  8.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 6 egun lehenago.**
c) Espediente-zenbakia: **926/2023.**

**2.- Kontratuaren xedea:**

a) Mota: **obrak.**
b) Xedearen deskribapena: **Dulantzi ikastetxe publikoan genero-ikuspegia izango duen jolastoki inklusiboa sortzea (I. fasea).**
c) Gauzatzeko epea: **3 hilabete.**
e) Luzapen-onarpena: **ez.**
f) CPV (nomenklatura-erreferentzia): **45233293-9, 45211360-0 eta 45112711-2.**

**3.- Izapidetzea eta prozedura:**

a) Izapidetzea: **arrunta.**
b) Prozedura: **ireki sinplifikatua.**
c) **Esleipen-irizpideak: proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomiko onuragarriena zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko da kontuan, kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta.**

**A. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak beheranzko hurrenkeran puntuatuko dira.**

a) Eskainitako preziorik txikiena: 80 puntu.

Puntuazio gorena eskaintza ekonomikorik onuragarrienari emango zaio, eta gainerakoen puntuazioa honako formula honen arabera kalkulatuko da:

EB = (ezt / aez) x P

Oharra:
EB = eskaintzaren balioespena
ezt = eskainitako zenbateko txikiena
aez = aurkezturiko eskaintzaren zenbatekoa
P = emandako puntuazio gorena

b) Lanaren berme-epearen luzapena: 20 puntu.

Gutxieneko berme-epea URTEBETE luzatzen duen eskaintzak puntuazio gorena lortuko du, eta gainerako eskaintzak, baldin eta aipatu epea hobetzen badute, zuzeneko proportzionaltasunaren bidez puntuatuko dira. Berme-epearen urtebeteko luzapenik eskaini ezean, lorturiko puntuazioa 0 izango da.

Berme-epea luzatzeko gehieneko epea BOST (5) urtekoa izango da, eta hortik gora ez du puntuazioan eraginik izango. Hala, lanen berme-epea bost urtez baino gehiagoz luzatzen duen eskaintza orok 20 puntu lortuko ditu atal honetan. "P" lorturiko puntuazioa izanik

P = ..........20 x eskainitako berme-epe puntuagarria........
Puntuazio gorena lortu duen berme-epea

**4.- Esleipen-aurrekontua:**

Kontratuaren gehieneko prezioa: **80.165,29 euro.** BEZa, ehuneko 21: **16.834,71 euro.**

**5.- Ezarri beharreko bermea:**

Behin betikoa: **% 5.**

**6.- Kontratistaren baldintza zehatzak:**

**Enpresariaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** bide hauetakoren baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:

a) Urteko negozio-bolumena, edo urteko negozio-bolumena kontratuari dagokion eremuan, azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi onenari dagokiona, eratzeko edo enpresaburuaren jarduerak hasteko dataren arabera eta 100.000 euroko edo gehiagoko eskaintzak aurkezteko dataren arabera.
b) Egokia den kasuetan, 100.000 euroko edo gehiagoko lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko asegurua dagoela egiaztatzeko agiria.

Obra-kontratuetan, enpresaren **kaudimen teknikoa** bide hauetakoren baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:

a) Azken hiru urteetan egindako obra edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren adierazpenaren bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean helaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari.
b) Enpresak obrak egiteko dituen teknikariak edo erakunde teknikoak, enpresakoak izan ala ez.

**Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean** inskribatuta egoteak bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kontratatzeko kaudimen teknikoa egiaztatuko ditu.

**7.- Eskaintzen edo parte hartzeko eskabideen aurkezpena:**

a) Aurkezteko epemuga: **20 egun natural, iragarki hau Kontratazio Publikoa Euskadin plataformako kontratugilearen profilean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.**
b) Euskarria: **elektronikoa.**
c) Aurkezteko tokia:
   1.- Bulegoa: **erregistro orokorra.**
   2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
   3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegría-Dulantzi.**
   4.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
d) Lizitatzaileak eskaintza indarrean izan beharreko epea: **3 hilabete.**

**8.- Eskaintza-irekiera:**

a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**
b) Helbidea: **Herriko plaza 1.**

c) Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegría-Dulantzi.**
d) Eguna eta ordua: **proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun balioduna.**

Alegría-Dulantzin, 2023ko ekainaren 2an
ALKATEA

Izpta.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA